

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Ezker Iraultzailearen aldizkaria

www.euskalherriasozialista.net

Altsasuko gazteak kartzelara
La Manadako bortxatzaileak aske

71 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

**Antolatuz
eta borrokatuz
garaituko dugu!**



2. Editoriala: PPren gobernua kaleko borrokarekin bota dugu!
4. Txileko eta Argentinako marea feminista
6. Aski da! Muntaiak polizialik ez! Altsasuko gazteak etxera!
8. 68ko Maiatza Estatu Frantziarrean
12. La Manada sistema bera da



PPren governua kaleko borrokarekin bota dugu!

Orain, beharrezkoa da mobilizazioekin jarraitzea gure aldarrikapenak lortzeko

Pedro Sánchezek jarritako mozioarekin Rajoy erori izanak begi bistan jartzen du 78ko erregimenak bizi duen krisi sakona. PPren ustelkeria kasuek, deriba neofrankistak eta murrizketa sozialek erantzun sozial masiboa eragin eta PPren gobernuaren bukaera ekarri dute, jakina, askoren artean lasaitasuna eta poza eraginez. Presio sozial hori dago Pedro Sánchezen garaipen parlamentarioaren atzean. Nola azaldu, bestela, aurrekontuen bozketan EAJk Rajoyren gobernu babestu izana eta egun gutxiren buruan mozioaren alde egin izana?

Urtea hasi zenetik, mobilizazio ikaragarriak ikusi ditugu Euskal Herrian, Catalunyan eta Estatu guztian. Presoak gerturatzearen alde urtarilean egin zen manifestazioaren ondoren, pentsionisten manifestazioak hasi ziren, greba feminista, La Manadaren eta Altsasuko gazteen epaien aurkakoak. Mobilizazio horien guztien tamaina eta izaera borrokalaria ikaragarria izan da. Zentzu honetan, 70eko hamarkadako azken urteetan bizi zen egoera aurre-iraultzailea ekartzen dute gogora. Lurrikara hori argi ikusi da Deustobarometroan. Galdeketa baten ara-

bera, EAEn gizartearen %71k parte hartu du izaera soziopolitikoko ekimenen batean eta %45a mobilizazioen batean izan da.

Txeke zuririk ez Sánchezen gobernuari

Mobilizazio hori da, eta ez besterik, Sánchez egiten hasi den keinuen atzean dagoen arrazoia, hala nola Franco Erorien Haranetik atzeratzeko saiakera, Billy El Niño torturatzailerari kondekorazioa kentzea, euskal presoak eta katalanak gerturatzeko edo emakumeak gehiengo diren gobernu osatzea. Edonola ere, keinu horiek propaganda besterik ez dira, oinarrian murrizketa eta errepresio politika berberak aplikatzen badira. Ekintza konkrituak nahi ditugu, gure bizi baldintzak errotik aldatzea. Akats larria da gobernuari txeke zuri bat ematea, bere hitzean konfiantza izatea eta, horregatik, kaleko mobilizazioak bertan beharra uztea, Unidos Podemoseko agintari batzuk hasiera batean adierazi duten bezala. CCOO eta UGTko agintariek ere, oso denbora gutxi behar izan dute patronalarekin soldata itun lotsagarri bat sinatzeko eta

burgesiaren alboan bake sozialaren bermatzaile izateko.

Azken finean, Pedro Sánchezek aliantza osatu du parlamentuan Ciudadanosekin (gobernu osatu nahi izan zuen alderdi horrekin) eta EAJ-rekin PP babesteko funtsezko gaian: Podemosek 2017ko maiatzean aurkeztutako zentsura mozioari aurka egiteko, Catalunyan 155a aplikatzeko eta adierazpen askatasunaren aurkako erasoak justifikatzeko. Gauza bera esan daiteke murrizketa sozialen, etxe kaleratzeen, justizia matxistaren edo diktadurako biktimei kalteak ordaintzeari PPK emandako ezetzaren inguruan mantendu duen jarreran. PSOEregan ohitura zaharra da emandako hitza ez betetzea.

Historian askotan gertatu denez, PSOE klase agintariaren interes estrategikoentzako aukera fidagarria da polarizazio handiko garai honetan. Justizia, Monarkia eta Guardia Zibila bezalako erakunde burgesak oso gaitzetsita eta kaltetuta daude, geroz eta zabala goak diren langile eta gazteen sektoreen artean.

Burgesia gogor saiatzen ari da koiuntura berri hau aprobetxatzeko. PSOE erabili nahi du behar duen erregimenaren egonkortasuna lor-



tzeko, eta ahal duen heinean, eraso berriak aplikatzeko. Espainiar ekonomia eta Estatu aparatua kontrolatzen duten familia handiek denbora irabazi nahi dute. Pedro Sánchezen mezu eta proposamen arrerakoiak, egun, hitzak besterik ez dira. Helburua kaleak hustea, denbora irabaztea eta dena bozken eta marko instituzionalen bide lasaiera iristea da, kaletik urrun.

Eskubideak kalean irabazten dira eta ez ditugu abandonatuko!

Kaleko mobilizazioak ez dira gelditu eta ez dira geldituko. Beharrezkoa da sakabanaturik dauden borrokak bateratzea. Ezker Iraultzailekook uste dugu borroka ezin daitekeela esparru parlamentariara mugatu.

Kaleak hustutzea eta arreta sistema sostengatzen duen erakundeetan jartzeko da burgesiak nahi duena. Hori dela eta, EHBilduri eta Elkarrekin Podemosi dei egiten diegu ofentsiba politikora pasa daitezen, ahal den modu bakarrean: PSOERI eta EAJ-ri ezkerreko oposizio bat egiten, ez Parlamentuan bakarrik, baizik eta borroka masibora deituta. Programa garbi dago: murrizketa sozialekin galdutakoa berreskuratzea eta 1.100 euroko gutxieneko pentsioa finkatzea; LOMCE eta lan eta pentsio erreformak indargabetzea; etxe kaleratzeak debekatzea eta alokairu sozialekin etxe bizitza publiko bermatzea; indarkeria matxistari, justizia patriarkalari eta soldata diskriminazioari amaiera ematea; Mozal Legea eta raperoen, txiolar-

rien, sindikalisten eta ezkerreko militanteen aurkako prozesu judizialak atzera botatzea; Catalunyarantz, Euskal Herriarentzat eta Galiziarantz erabakitze eskubidea onartzea, euskal presoak gerturatzeko eta preso politikoak askatzea.

Azken urtetako esperientziak erakutsi du ezker indartsu bat eraiki behar dela, langile klasearen eta gazteriaren mobilizazioan oinarrituko dena eta eskuinari, estatu errepresiboari, bere lege atzerakoiei aurre egingo diena eta eskubide sozialak konkistatuko dituen, gizartearen eraldaketa sozialistarako bidea irekiko duena. Ezker Iraultzailea eraiki behar da, behetik, auzo, fabrika, ikastetxe guztietan, langile mugimenduan eta klaseko feminismoan. Ez dago beste biderik.

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 708 281
Twitter: @EHSozialista - @Ezklraultzailea • Facebook: Ezker Iraultzailea - Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

Txileko eta Argentinako marea feminista

“Erortzera doa, erortzera doa! Behera patriarkatua!”

MARINA MATA
Emakume Aske eta Borrokalariak

Azkeneko asteetan, masen mobilizazioak bizi izan ditugu Txilen eta Argentinan. Horietan Txileko eta Argentinako kaleak bete dituzte ehunka eta milaka emakumek, gaztek eta emakume langilek, hurrenez hurren, Piñeraren eta Macriren gobernuei emakumeentzako eskubide errealak, hezkuntza sexistaren bukaera eta ospitale publikoetan abortu aske eta doakoa exijitze-ko. Edozelan ere, borroka egun horiek ez dira urrundik ere isolaturik egon, baizik eta “Ni una menos” mugimenduaren jarraipena izan dira Argentinan, bai eta uholde feminista iraultzailearen beste parte bat ere,

kolokan ari dena jartzen ez soilik matxismoa, baita patriarkatuaren eta kapitalismoaren oinarriak ere.

**Marea berdea Argentinan
“Ez dadila izan klase pribilegioa
abortutik bizirik irautea”**

Diputatuen Ganbaran 20 ordu baino gehiagoz luzatu zen borondatezko haurdunaldiaren etenaldiari dago-kion Legearen inguruko eztabaida, ekainaren 13 eta 14an, milioi bat emakumek baino gehiagok kalean legea onartzea eskatzen zuten birtartean. Azkenean, aurrera ateratzea lortu zuten 4 botoen aldeagatik.

Aldeko emaitza hori presioaren eta mobilizazioaren ondorio zuzena izan da, bai eta Macriren gobernuari

emandako zartadaren ondorioa ere. Izan ere, presidenteak bere burua beharturik ikusi zuen gizartearen presioaren aurrean, debatea irekitzeko, berak debatearen aurkako joera hartu bazuen ere. Halaber, Elizari aringarrik gabe emandako kolpea izan da, zeinak bere baliabide eta bitarteko guztiak erabili baitzituen neurri honi aurka egiteko.

Garaipen honek aurrekari botereetsua finkatzen du Argentinan ez ezik baita Latinoamerika osoan ere, erakusten duelako borroka dela bide bakarra. Egun, abortua Kubak, Uruguayk, Guyanak, Mexiko Hiriak, Guyana frantsesak eta Puerto Ricok soilik baimentzen dute, bortxaketa, fetuaren normaltasun hilgarria edo amaren bizitzarako arriskua ez diren arrazoiengatik. Aldiz, Argentinako Diputatuen Ganbaran onarturiko Legea haratago doa, 14. aste-
ra arteko abortu askea eta doakoa ezartzen baitu ospitale publikoetan. Legeak barne hartzen du ere epeen luzatzea, aurretik aipaturiko kasuetan eta integratzen du heziketa sexuala eskoletan eta institutuetan, ildo oso argia jarraitzen duena: heziketa sexuala erabaki ahal izateko, antisorgailuak abortatu behar ez izateko eta abortua ez hiltzeko.

Egunotan gehien oihukaturiko eskaeretan nagusi izan da, hain zuzen, “abortu legala ospitalean” (“aborto legal en el hospital”). Kontsigna horrek exijitzen du behin betikoz bukatzea abortu klandestinoekin, urtero milaka emakumeen bizitza arriskuan jartzen baititu. Izan ere, abortua jasan behar duten emakume horiek 4 urteko kartzela



zigorrei aurre egin behar izateaz gain, aurre egin behar diote abortuaren ordainketari ere. Segurtasun baldintza maximoetan abortatzeak 20.000 peso balio du. Errealitate gordin horren ondorioa da egunero 135 emakume ospitaleratu behar izatea ospitale publikoetan, abortu klandestinoetan gertatzen diren konplikazioen eraginez (370.000 eta 522.000 artean, Osasun Ministerioaren arabera). Ez hori bakarrik; abortu klandestino horiek dira amen hilkortasunaren kausa nagusia.

Herrialde sorta zabal bateko gertakari larregarriek aldarrikatu dute eskaera horien guztien beharra eta premia. Txilen, esate baterako, protagonista izan zen “kontzientzia objektzio protokoloa”, iazko udazkenean abortua legalizatu zenean soilik bortxaketa, amarentzako arriskua eta fetuaren malformazioa kasuetarako. Protokolo hori erabat endekatu da kontzientzia objektzio instituzional bat izateraino. Protokolo horrek ez dio soilik atea irekitzen medikua-
ren aukerari abortua praktikatzeari uko egiteko, baizik eta instituzio

osoei aukera ematen die abortuak praktikatzeari uko egiteko, abortu horiek legeak begiesten baditu ere eta emakume askorentzako ondorio larregarriak izan baditzakete ere.

**Txileko “uholde feminista”
mehatxua da Piñeraren
gobernuarentzat**

Masa mobilizazioak gertatu dira Txilen, egoera horrek eragindako berebiziko gizarte suminduragatik eta sumindura horri lotu zaizkio unibertsitate ikasleen aurkako abusu eta eraso sexualen kasuak. Mobilizazio horiek unibertsitateetan hasi ziren, hilabete oso batez luzatu diren itxialdietan; gero, mobilizazioetara batu ziren institutuetako ikasleak eta emakume langileak guztiak batera, honako lemapean: “Prekarizazioa guztiok bizi dugu: kalera ikasleak, migratzaileak, amak eta emakume langileak”. Mobilizazio horiek abusuen bukaera, hezkuntza sexuala ezartzea eskoletan eta prekarizazioa deuseztatzea exijitzen dute. Era berean, aldarrikatzen du-

te gobernuak ez dezala onartu diru publikoa jasotzen duten klinika pribatuak “kontzientzia objektzioa” egin ahal izatea, abortuak egiterako orduan. Horrek guztiak benetako “uholde feminista” sortu du. Izan ere, erasotik eta aste betera, Piñerak erantzun du bere “Emakume Agenda” delakoarekin, mahaigaineratuz “osasun-planetan agertzen diren alde ez-justifikatuekin bukatzea, kalte egiten baitiete emakumeei eta bereziki, adin ugalkorrean daudenei”.

**Patriarkatuaren aurka klase
feminismo antikapitalista**

Aparteko mobilizazio horiek ezbaierik gabe markatzen dute borroka-
ren eta mobilizazioaren bidea, baita mundu mailan ere, eta lezio oso baliotsuak uzten dituzte. Sistema kapitalista, matxista eta patriarkal honekin haustea da bide bakarra, emakumeak zapaltzen dituzten lege eta egoera guztiekin bukatzeko. Ausardiaz jarraitu behar da borrokarekin, kaleak hustu barik eta garaipenera arte.



Iruñeko kaleak gainezka Altsasuko gazteen sententziaren aurka

Aski da! Muntaia polizialik ez! Altsasuko gazteak etxera!

EZKER IRAULTZAILEA

Ekainaren 16an Iruñean egin zen manifestazioa ziurrenik hiri honen historiako handiena izan zen, apirilaren 14koa gaindituz. 150.000 pertsona baino gehiago hurbildu ziren Iruñean Altsasuko gazteak askatzeko eskatzera, Euskal Herriko txoko guztietatik, jende morda Catalunyaetik eta baita Estatu mailatik ere. Gurasoen komunikatua nazioarteko elkartasun zabal, kontinente guztietako herrialdeetatik jaso baita, eta manifestazioko parte hartzea eskertu zen: “Catalunya, Madril, Gaztela, Aragoi, Galizia, Extremadura, Andaluzia, penintsulako herriak, herri solidarioak”.

Jendetza horren aurreikuspenaren aurrean, manifestazioa deitu zutenek irteera tokia aldatu behar izan zuten. 4 km-ko ibilaldian zehar pankarta zeraman buruak

nola edo ahala bidea ireki behar izan zuen Altsasuko gazteak askatzeko oihukatzen zuen jendetzaren txaloen artean.

UPN eta Nafarroako PPrene erreakzioa berehalakoa izan da. Nafarroako gobernuak manifestazio horri emandako babesa kritikatu dute, Ana Beltranen hitzetan “keinua totalitario” gisa deskribatu du babes hori. Haien erreakzio historikoa, eskuin espainolistari eta burgesiari mobilizazio erraldoi horrek eragiten dion urduritasunaren seinale argia da. Manifestazio horrek erabat agerian uzten du estatu aparatua frankista honek, bere instituzio juridikoei eta propaganda ma-

kinariak duten sinesgarritasun falta ikaragarria, muntaia poliziala eraiki dutenen begi bistako legitimitate falta.

Manifestazio horrek eta Euskal Herrian nahiz hemendik kanpo antolatu diren ehunka mobilizazioek kolpe gogorra dira 78ko erregimenarentzat. Estatuaren errepresio aparatua honek ez du inoiz orain duen bezain legitimitate eta sinesgarritasun gutxi eduki langile eta gazte masen artean. Urriaren 1a Katalunian, La Manadaren epai lotsagarria ondoren, Altsasuko gazteen kasuan eta beste hainbatetan... hori guztia politikari ustelek, indar poli-



zialek edo erregearen familiak duen inpunitatearekin elkarturik, behin eta berriz bete ditu kaleak masen artean samina piztuz. Estatu aparatua papera, pribilegio kapitalistak defendatzeko aparatua, bere errealtate gordinenean geratu da agerian, apaindurak eta ustezko justizia inpartzialaren diskurtsoak deseginez.

Ekainaren 1eko epaiak 2 eta 13 urte bitarteko kartzela zigorrak ezarri dizkie gazteei, zortzien artean 79 urteko zigorra batuz, 100.000€ ordaindu beharrekin batera. Ekainaren 5ean Guardia Zibil andana Altsasun sartu zen Auzitegi Nazionalaren aginduz, lau gazte Soto del Realera eramateko atxiloturik. Ihes arriskua zegoela arrazoitu zuten. Baina horrek ez du inolako zentzurik, epaiaren aurretik urte eta erdian ez baita horren zantzurik egon, zigor handiagoak eskatzen zitzaizkien arren. La Manadako bortxat-

zaileak berriz, aske utzi dira, eta egun batzuetara Guardia Zibil bat ihes egiteko planetan harrapatu zuten. Lehendik kartzelan 580 egun daramatzaten hiru gazteak bezala, beren etxetik ehundaka kilometrotara dagoen ziegetan eta baldintzarik gogorrenetan daude orain Altsasuko 7 gazte.

Hala ere, hori gutxi ez eta, manifestazioa baino 48 ordu lehenago, fiskaltzak epai bortitz honi hellegitza jarri zion, arinegia zelako ustean eta, berriz ere, 8 gazteak ETAk bultzaturiko ekintza terroristengatik kondenatzeko eskatu zuen. Ezin ageriago dago atzerakoi hauek ETaren behin betiko desegitearen aurrean sentitzen duten nostalgia. Hamarkadetan zehar, erakundea egotea izan da Euskal Herrian errepresioa eta arbitrariedade juridikoa justifikatzeko koartada. Ekainaren 16ko manifestazioak, era berean, mahaiaren

gainean ezartzen du ETaren desegiteak langile klasearen eta gazteriarren batasun iraultzailea indartzeko irekitzen duen bidea, masiboki atez kalera zapalkuntzarekin amaitzeko. Euskal Herrian azken hamarkadetan atxiloteta eta muntaietan oinarrituriko epai morda egon dira, “Dena ETA da” tesia, etab., batez ere gazteen aurka. Baina inoiz ez zen egon erantzun hain masiboa.

Ezker Iraultzailekook Altsasuko gazteen aurkako muntaia polizial kriminala eta epai hau salatzen dugu. Estatu aparatua frankista honen biktima eta preso politiko guztiak aske uztea eskatzen dugu, indargabetu daitezela Mozal Legea eta lege errepresibo guztiak. Orain dela 40 urte gertatzen zen bezala, errepresioaren aurkako borroka hori eragiten duen erregimenaren aurkakoa da, beldurrez dardarka baitabil langile klasearen eta gazteriarren indarraren aurrean.



68ko Maiatza Estatu Frantziarrean

IKER OTERMIN

Bost hamarkada igaro arren, 68ko maiatzak inspirazio iturri oso indartsua izaten jarraitzen du sistema kapitalistaren miserien aurrean borrokatzeko beharra sentitzen duten hamaika gazte eta langilerentzat.

Burgesiarentzat, ordea, arrazoi beragatik hain zuzen ere, lurperatu beharreko historiako orrialde beltz bat izan da betidanik. Urteetan zehar, burgesiak ahalagin izugarriak egin ditu Estatu frantziarrean 1968ko udaberrian izandako gertakariak desitxuratzeko eta ahanzturara eramateko; inolako arrazoirik eta helbururik gabeko errebolta gisa aurkeztu izan dute, libertinajearen edo hedonismoaren matxinada masibo eta zoro bezala, mugimendu *hippie* bat besterik ez zela esan izan da, etab.

Hori dela eta, burgesiaren historialariek saiakera bereziak egin dituzte langile klaseak jokatu zuen lehen mailako paper iraultzailea ezkutatzeke. Lurperatu ezingo dena da, ordea, 68ko maiatza historiako greba orokorrik handienetakoa izatea-rekin batera, sistema kapitalistaren

biziraupena kolokan jarri zuen benetako iraultza bat izan zela. Langile klaseak praktikan erakutsi zuen herrialde garatu batean burgesiaren boterearekin amaitzeko duen indar iraultzaile ikaragarria eta hori burgesiaren kontzientzian kolpe oso gogorra izan zen, bere pribilegio guztiak galtzeko arrisku larria ikustearaino iritsi baitzen.

Ikasleak, langile iraultzaileen txinparta

Garai hori markatu zuen elementu garrantzitsua izan ziren kolonia ohietako masek zapalkuntza inperialistaren aurka egindako askapen borroka guztiak. Horiek eragin izugarria edukitu zuten Europako eta Iparrameriketako gazte eta langileen kontzientzietan. Afrikako, Asiako edota Latinoamerikako manifestazio, altxamendu edo iraultza bakoitza, inperialismoak gehiengo zabalari inposatzen zion esplotazio basatiaren aurkako masa mugimendua zen. 1959ko Kubako iraultzairen garaipenak eta 1962an Argeliakoarenak, Vietnameko herritarren erresistentziak, maila internaziona-

lean mirespen izugarria sortuko zuen milioika gazte ta langileren artean.

Beste hainbat esperientzia iraultzailetan bezala, 68an ere gazteria izan zen Estatu frantseseko kontraesan sozialak modu azkarrenean agertzen lehena. Maiatzaren 2an, polizia Vietnamingo esku hartze inperialistaren aurkako manifestazio bat erreprimitu zuen. Maiatzaren 3an berriro kargatu zuten, oraingo honetan Sorbonan, Nanterreko ikasleen aldeko elkartasun asanblada bat eragozteko asmoz, plaza husten saiatu zirenean. Poliziaren errepresio ekintza horiek haserrearen bolbora kupela leherrazitu zuen txinparta izan ziren.

Ikasle mugimendua erritmo bizian zabaltzen hasi zen: Pariseko fakultate eta institutuak itxi zituzten eta auzo latindarrean errebolta indartsuak izan ziren. Hasiera batean, izatera iraultzailea aspaldi galdua zuen Alderdi Komunista Frantsesak gogor kritikatu zuen mugimendu hura, “mozorroa kendu behar zaie sasi-iraultzaileei” izeneko artikulua batean. Sindikatu garrantzitsuenek ere, CGT, CFDT, Force Ouvriere..., saiatu ziren langileak ikasle mugimenduarekin

ez kutsatzen, eta uko egin zien greba orokorra deitzeari.

Hala ere, herritarren haserrea eta langile erakundeetako oinarriko presioa handiegia zenez, azkenik burokrazia sindikal zerbait egitera beharturik ikusi zuen bere burua. Maiatzaren 13rako greba orokorra deitu zen CGT, CFDT eta ikasleen arteko deialdi bateratuarekin. Greba orokorrak inflexio puntu kualitatibo bat eragin zuen prozesu guztian. Milaka eta milaka ikasle eta langile irten ziren kalera.

Langile klasearen borroka, iraultzaileen oinarria

Sindikatueta buruzagiek manifestazio hori mugimenduari bukaera emateko nahikoa izango zela espero zuten; ez zuten borrokari jarraipena emateko asmorik. Beraientzat mobilizazio isolatu hori presioa askatzeko modu bat besterik ez zen. Greba orokorraren eragina, ordea, Estatu frantziarreko txoko guztietara iritsi zen, eta hurrengo egunean lantegi handietan greba mugagabeak deitzen hasi ziren, langileen iniziatibarekin.

Maiatzaren 19an 2 milioi grebalaria izan ziren, maiatzaren 20an 5 milioi, maiatzaren 21ean 8 milioi eta, azkenik, maiatzaren 28an 10 milioi langile zeuden greban. Milioika langilek fabrikak okupatu zituzten. Euren senari jarraituz, sistema kapitalistaren zutabe nagusienetako bat kolokan jarri zuten: jabetza pribatu santua edo, beste era batean esanda, burgesiak ekoizpen baliabideen gainean duen kontrola. Langile klasea benetan lantegien jabe sentitzen zen.

Hori horrela izanik, mugimendua ez zen ekintza horietan bakarrik geratu, haratago jo zuen. Borrokari jarraipena, indarra eta koordinazioa emateko, hainbat hiritan auzoetako antolakuntza komiteak sortu ziren. Oso esanguratsua izan zen zentzu honetan Nantese eman zuen eredu. Hemen grebalariei antolakuntza beste inon baino urrunago iritsi zen. Auzoetako komiteak elkartu eta hiri guztiko Greba Komite Nagusian sortu zuten langile, nekazari eta ikasle sindikatuak babesturik. Berehala, komiteak hirien agintaritzak bere gain hartu

zuen. Maiatzaren 27an, jokatzeko paperaren garrantziaz oharturik, komite hori autoritate bakar moduan ezarri zen udaletxean. Greba Komite Nagusiaren eginkizun garrantzitsuenak borrokaren antolakuntza indartzeko jardura ekonomikoa kontrolatzeko oinarritzen ziren.

Langileen agintariak uko egin zioten boterea hartzeari

Kapitalismo frantsesa kinka larri hartatik salbatu zuena ez zen armada izan, ezta polizia ere. Indar horien barnean sektore zabalak gobernuarekin kolaboratzeari uko egiten ari zirela ikus zitekeen. Okupaturiko komunikabideetan edo burgesia txikiaren geruzen mobilizazioetan ere, grebalariek zuten indar eta babes ikaragarria ikus zitekeen. Hain zuzen ere, konfederazio sindikaletako buruzagiak izan ziren, zuzendaritza estalinisten eta erreformisten babesarekin, enpresariaren elkartarekin eta gobernuarekin negoziatzeko prestutasuna agertu zutenak, De Gaulle eta Pompidou amildegitik ateraz. Mugimendua boterea hartzera eta iraultza sozialistara zuzentzeari uko egiteak, inolako alternatibarik eskaini gabe, kontrairaultzairen barrikadara eraman zituen buruzagi horiek.

Maiatzaren 25ean gobernuaren, patronalaren eta sindikatuen arteko negoziazioak hasi ziren. Hilaren 27an, Grenelleko Hitzarmenak izenarekin ezagutuko ziren akordio batera iritsi ziren agintari sindikalekin. Hitzarmen hartan, burgesiak urteetan zehar ukatu izan zituen kontze-

sioak eskaintzen zituen, botere guztia galtzeko beldurrez.

Baina CGTko idazkari nagusia Renaulteko fabrikari 12 mila langileren aurrean itunak biltzen zituen hobe-kuntzen zerrenda irakurtzen ari zela, langileek moztu egin zuten “Gouvernement populaire! Gouvernement populaire!” oihuka. Ezin izan zuen bere azalpena bukatu. Langileek lantegi horretan eta beste lantegi askotako batzarretan uko egin zieten lanera itzultzeari eta grebarekin amaitzeari. Zuzendaritza sindikalak, ordea, mugimendua zatitzen saiatu ziren, lanera itzultzeko esanez, eta De Gaulle proposaturiko erreferendum eta hauteskundeetan ezarriz ilusioa.

68ko maiatzeko gertaerak benetan aberatsak dira, egun sozialismoaren alde borrokatzen dugun gazte eta langileentzat. Ikasgai asko atera daitezke bertatik, baina denetan garrantzitsuenak, ezbairik gabe, antolakuntza iraultzaile baten beharrea eta zereginetan datza. Langile klaseak gizarte kapitalistarekin amaitzeko eta gizarte sozialista bat eraikitzeko pauso garrantzitsuak eman zituen, lantegiak okupatuz eta langile botere erakunde demokratiko eta iraultzaileak sortuz greba orokorraren baitan. Beharrezkoa izango da, etorkizunean, horrelako gertaeren aurrean, antolatuz dauden gazte eta langileak indartsu egotea, programa eta esperientzia iraultzaile landurik izatea. Soilik zuzendaritza iraultzaile batekin da posible indar geldiezin hori antolatzea eta bideratzea, horrela estatu kapitalistari azken kolpea emateko, boterea hartuz eta gizarte sozialista bat eraikitzen hasiz.





KONTRAPORTADAN HASTEN DA

Ez da kasu isolatua, patriarkatua baizik

Askotan azpimarratu dugunez, La Manadako kasua ez da kasu solte bat. Eta, noski, arazoa ez da norbanako matxista batzuetara mugatzen. Arazoa sistema judizial eta estatu aparatu guztiaren oinarrian dagoen matxismo ikaragarria da. Bost kriminal horiek babestuz, epaileak beren epaiekin eta politikariak beren murrizketekin, bortxaketaren kulturarekin, emakumearen indarkeriaren izurrite horrek inpunitatez jarrai dezan bermatzen dute. Gu-txiengo baten pribilegioak eta irabaziak defendatzen dituen erregimen kapitalista bat dago, milioika emakumeren, haurren, etorkinen eta langileren sufrimenduaren kontura. La Manada sistema bera da.

Egun hauetan entzun dugu gobernutik, parlamentutik, telebis-tetako kalaketatik eta egunkarietatik genero perspektiba behar dela epaitegietan eta zentzu horretan hezi behar direla epaileak. Emakume Aske eta Borrokalariek ez dugu

argumentu lotsagarri hori onartzen, oinarrian dagoen arazoa ezkutatu nahi baitu.

Karrera judizialean ez daude gizonetzko epaileak bakarrik. Emakumezkoak ere badaude, beren lankide gizonak bezala epai lotsagarriak ematen dituztenak eta bortxatzaileak eta erasotzaileak absolbitzen dituzte. Akaso emakumezko epaile horiek ez dute ikusten martxoaren 8an greba egin genuen eta La Manadako epaiaren aurrean kaleak bete ditugun milioika emakumeok ikusten duguna? Bai, noski. Ez da zuzenbideko karrera eduki behar gertatzen denaz jabetzeko. Kontua da emakume horiek, epaile gizonak bezala, sistema zerbitzatze-ko kontu handiz hautaturiko kasta bat osatzen dutela, egungo ordena soziala bermatzeko, klase, genero eta arraza zein nazio zapalkuntza mantentzeko.

Justizia matxista, klasista eta frankista

Arazoa ez da epaileen heziketa falta, ezta “epaitegi espezializatu” ge-

hiago behar direla. Benetan galde-tzekoa da zergatik Altsasuko gazteak ehunka kilometrora dagoen kartzelara eraman dituzten, egin ez duten delitu bategatik eta beraien inozentzia soberan frogatu denean; zergatik txiolariak eta raperoak espetxera bidaltzen dituzten monarkiaren aurkako kantutak idazteagatik, edo Alfon bezalako gazteak kartzelan jarraitzen duten eta milaka ezkerreko ekintzaile judizialki jazarriak diren, sistema honen injustizien aurka borrokatzeagatik. Zergatik urriaren 1ean Catalunyan bozkatzea krimen askoz ere larriagotzat hartzen den, taldeko bortxaketa bat baino, edo eraso faxistak eta homofoboak baino?

Horregatik da hain garrantzitsua mugimendu feminista arazoaren sustraira eramatea: justizia sistema kapitalistaren oinarri-zko instrumentu bat da, zapaltzen gaituzten beste instituzioak bezala. Kontua da emakumeak kargu judizialean, ministerioetan, banku, enpresa edo kargu politikoetan egonagatik ere, horrek ez duela ezabatzen gure aurkako esplotazioa, sol-

data diskriminazioa, matxismoa edo indarkeria. Pedro Sánchezen gobernuak hori erakutsi berri digu. Gehiengoa dira emakumezko ministroak baina adierazi du “erabaki hau sistema judizialaren normaltasunean ezarri behar dela eta gobernuak hori babesten duela”. Dena esanda dago. “Feminismo” huts horrek, sistemaren logikaren menpe-ra ezartzen denak, inoiz ez du bizi dugun zapalkuntzarekin amaituko.

Borroka da bide bakarra

Esperientziak berriro erakutsi digu borroka feministak, irabazi nahi badi, klasekoa, iraultzailea eta anti-kapitalista izan behar duela. Hori da Emakume Aske eta Borrokalarien programa, Ikasle Sindikatutik eta Ezker Iraultzailetik irmoki defendatzen duguna.

Mugimendu feministatik mobilizaziorik masiboena eta indartsuena bultzatzen jarraitu behar dugu. Aliatuak zein diren eta zein ez ja-



kin. Kasu konkretu honetan ere zer eskatzen dugun oso argi dugu: La Manadako bortxatzaileek espetxera itzuli behar dute, inplikaturiko magistratuak inhabilitatu behar dira eta sistema judiziala garbitu epaile matxista, atzerakoi eta faxista guztiak kentzeko. Kalera! Borrokarekin lor dezakegu!

78ko Sanferminak: 40 urte German Rodriguez eta Joseba Barandiaran erail zituztela

EZKER IRAULTZAILEA
Nafarroa

Aurtengo uztailaren 8an, 40 urte bete dira errepresio polizial bortitzak markatu zituen Iruñeako San Fermin haietatik. Urte horietan, Euskal Herrian ere langile mobilizazio eta grebek izugarritzko indarra erakutsi zuten: diktaduraren amaiera ekarri zuten eta gizartea errotik eraldatzeko borroka planteatu zuten. Urte hartan bertan, Iruñean, Maiatzaren 1eko manifestazioko errepresioa oso gogorra izan zen eta hilabete guztian zehar egon ziren borrokak kalean poliziarekin eta eskuin muturrarekin. Hainbat

atxilotu zituzten, batzuk peñetako kideak ziren. Erantzun gisa udaletxeko solairu bat okupatu zen.

Uztailaren 8an, plazako ateak zabaldu zirenean peñetako txikiei ongi etorria emateko, 40 polizia sartu ziren kargatzera, gomazko pilotekin eta ke poteekin. Jendeak ahal zuen moduan erantzun zuen botilak jaurtiz. Poliziak plaza 30 zauritu baino gehiagorekin utzi zuen. Samina hiri guztira zabaldu zen. Poliziaren errefortzuen aginduak argiak izan ziren: istiluak tirokatuz desagitea jendea “erailtzeaz arduratu gabe”. Horrela erail zuten German. Festak eten egin ziren. Uztailaren 12an, Euskal Herri mailan deituriko borroka egun ba-

Ez da abusua, bortxaketa da!
Guk sinesten zaitugu!

SF
78
gogoan!

IMPUNITATEARI STOP IMPUNIDAD

tean Joseba Barandiaran erail zuen Donostian poliziak. Inoiz ez zen inor epaitu gertaera horiengatik.

Herriak ez du barkatuko!!

Gertaeren inguruko informazio gehiago aurkituko duzue sanfermines78gogoan.org web gunean.

La Manada sistema bera da

Aski da, justizia patriarkalik ez!



EMAKUME ASKE ETA
BORROKALARIAK

Ekainaren 21ean Nafarroak Auzitegiak La Manadako bortxatzaileak aske uztea erabaki zuen. Beste kol-

pe bat eman nahi izan du justizia faxista eta matxista honek. Baina guk, milaka eta milaka emakumek, gaztek eta baita gure alboan borrokatu duten mutilek ere, berriro ere, kaleak bete genituen, Euskal

Herriko hiri eta herrietan kontzentrazio eta manifestazio masiboak eginez ekainaren 21 eta 22an. Izugarrikoa izan zen, beste behin, marea feministaren erantzuna, baita Catalunyan, Madrilén, País Valencián, Andaluzian, Galizian eta Estatu mailako txoko guztietan. Epai lotsagarri horren aurrean egin genituen mobilizazio indartsuetan eta maiatzaren 10eko ikasle greban, argi utzi genuen ez dugula bortxatzaileak defendatzen dituen justizia patriarkal hau onartuko. Emakume Aske eta Borrokalarietako kideak aktiboki parte hartu dugu erantzun irmo eta bateratu bat eman beharra zegoelako. Guk argi daukagu eta ez gaituzte isilduko.

Antolatu zaitez

EZKER IRAULTZAILEAN

Euskal Herria Sozialista baten
alde borrokatzeko

10. ORRIAN JARRAITZEN DU

- Kanpora 155a! Preso politiko guztiak askatu. Kanpora Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilararen indarrak Euskal Herritik eta Kataluniatik.
- Lan eta pentsioen kontraerreformen indargabetzea. Jubilazioa 60 urtetara soldataren %100arekin eta errelebo kontratuak gazteentzat.
- 1.100 eurotako gutxiengo soldata eta 35 orduko lanaldia astean, soldata murrizketarik gabe.
- Etxe kaleratzeak debekatzea. Etxebizitza publikoen parkeak alokairu sozialekin, bankuen eskuetan dauden etxebizitzak desjabetuz.
- Pribatizaturiko zerbitzu publikoak bermunizipalizatzea, langileak mantenduz eta ugarituz eta lan eskubideak errespetatuz.
- LOMCE eta 3+2 kanpora. Kalitatezko hezkuntza publikoa, demokratikoa eta doakoa, haurtzarotik unibertsitatera arte.

- Osasungintza publiko duin, doako eta unibertsalerako eskubidea.
- Benetako elkartasun konkretua errefuxiatuekiko: kuporik eta barneratze esparrurik ez. Atzerriko Legearen indargabetzea eta CIEak ixtea.
- Adierazpen, bilera eta antolakuntza eskubideak osorik bermatzea. Mozal legearen indargabetzea.
- Bankaren eta sektore estrategikoen nazionalizazioa, pertsonak erreskatatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Autodeterminazio eskubidearen alde, Catalunyan, Euskal Herrian eta Galizian. Errepublikak sozialista katalanaren alde, eta errepublikak sozialista federal baten alde, Estatu espainiarra osatzen duten herrien eta nazioen batasun libre eta boluntarioan oinarritua, horrela erabakitzen badute.